AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2830

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 30ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa betetzeke uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 47.3 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2012ko martxoaren 23ko Ebazpenaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (apirilaren 25eko EHAA, 81. zk.), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Goi-kargudunaren idazkari lanpostua hau: Kanpoan diren Euskal Herritarrentzako eta Gizataldeentzako Zuzendaritzan, 520010 kodea, 15 dotazioa.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri dakioke ebazpena eman duen organoari, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 30a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.